


Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

2023ko Ohiko Batzar Orokorra, azaroaren 16an **OSTEGUNEZ** arratsaldeko **17:30ean** (lehen deialdian), **18:00etan** (bigarren deialdia) eta hala badagokio, **18:30ean** (hirugarren deialdian) **Agerialde eraikineko 2. solairuan (Alperroburu, 5)** egingo dela jakinarazten zaizue.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailaz helaraziko zaizue hurrengo egunetan. Hona hemen [deialdia](#).



Txokolatedun egutegiaren salmenta

Hendaiako **Gure Ikastolatik** beraien **txokolate-egutegien** salmenta-kanpainan laguntzeko proposamena jaso dugu.

Egutegi horretan, abenduaren 1etik 24ra bitartean, egunero irekitzeko leihotxoak aurkitzen dira eta leiho bakoitzaren atzean, txokolate bat edo egun bereziren batean bina ere agertu daitezke. Olentzero eta Maridomingi ere hor dabilta!

Txokolateak Baigorriko Laia txokolategikoak dira eta auzolanean gurasoek sartzen dituzte txokolateak kaxetan. Diseinua Asisko Urmeneta marrazkilariak egin da, eta egutegiari bertsoa Amets Arzallus bertsolari eta Ikastolako ikasle ohiak jarri dio.

Egutegi horren **salneurria 10€**-koa da.

Erosi nahi duenak, bete [Txokolatedun Egutegia](#) inprimakia, **azaroaren 10a baino lehen**.



Jangela-zerbitzuaren oharra

Azaroko menua honakoa izango da:

- o 3 – 16 urte. [Menu arrunta](#)
- o 3 – 16 urte. [Intolerantziadunentzat menua](#)



"Gatazka, ataska edo aska?" Helduentzako Ikuskizuna

Hitz Aho Guraso Elkarteak, erlazio kudeaketan oinarritutako ikuskizuna antolatu du helduentzat.

Nerea Mendizabal psikopedagogoak eta Itziar Saenz De Ojer "Pituxa" pedagogoak harremanen inguruan hausnartzeko begirada umoretsua duen kantu eta elkarrizketa-saioa eskainiko dute. Komunikazio ez bortitzaren ikuspegia antzerki, umore, musika eta edukiekin nahastutako ikuskizun dibertigarri horrek "edonorentzat esanguratsuak zaizkigun egoeretatik askatzeko arintasuna eskaini nahi digu."



Eguna: Azaroak 8

Ordua: 17:30

Iraupena: 75 minutu

Non: Sutegin

"EUSKARAZ BIZI NAHI DUT" material-eskaintza

"Euskaraz bizi nahi dut" mezuak indartsu eta argi transmititzen du euskararen aldeko jarrera. Horregatik da hain arrakastatsua.

Euskararekiko aldeotasuna agerian jartzeko lagungarri gertatuko zaizuelakoan, kamisetez gain, ogitartekoak biltzeko Boc´n´rolla eta botila ere eskaintzen dizkizuegu. Eta baita oso erabilgarriak diren kotoizko poltsak ere. Aurreko albiste buletinean eskaera orrian akatsa zegoenez, eskaera egiteko epea atzeratu dugu azaroaren 9ra. Hona hemen [eskaera ori berriua](#).

Beti bezala, kanpaina honen **etekina euskalgintzaren proiektuetara** bideratuko da.

Tutoreari jakinarazi zein den aukeratutako produktua **azaroaren 9a** baino lehen (eskaera orria bera inprimatu eta betez edo papertxo batean aukera idatziz). **Ordainketa eskudirutan** egin behar da (eskariarekin batera tutoreari emanez).



Mundualdia

Iaz bezala, larunbat honetan, **azaroak 4**, Mundualdia ospatuko da Usurbilen. Goizean zehar Zirimarako kideok, Gaztelekuko gaztetxoekin eta begirale ikastaroa gauzatzen ari diren etorkizuneko hezitzaileekin batera, familia plana antolatu dugu. Goizeko **11:00tan Dema plazan** elkartuko gara, eta 12:30 bitartean jolasak antolatuko ditugu.

Gogoratu, familia planaren helburua gurasoak haurrekin batera jolasetan parte hartzea dela.

Bertan ikusiko garelakoan, ondo izan!



Euskararen alde, azaroaren 4an denok Bilbora!

Euskalgintzaren Kontseiluak antolatuta, azaroaren 4an, 17:00etan Bilbon egingo den manifestaldirako gonbitea egiten dizuegu. Hona [hemen esku-orria](#) xehetasun gehiagorekin.

HAUR HEZKUNTZA

2-3 gelako guraso bilera

Azaroaren 8an, 2-3 adin tarteko haurren gela-bilera egingo da. 2-3 urteko geletan elkartuko dira arratsaldeko 17:30ean.

* Bilera ahalik eta egokien egin ahal izateko seme alabarik gabe etortzea eskatzen zaizue.



Irakur jolas txokoa

AZAROAK 9, Osteguna, 17:30ean, Usurbilgo Udal liburutegiak IRAKUR-JOLAS TXOKOA antolatu du 3-5 urteko haurrentzat (HH3, 4 eta 5) eta euren guraso edo zaintzaileentzat; hau da, haur bakoitzak laguntzaile batekin etorri behar du. Parte-hartzaile kopurua mugatua da. Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak LH3

LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Irteera LH6

Hurrengo ostegunean, azaroak 9, LH6. mailako ikasleekin Zumaiko Flyschak ikustera joateko asmoa dugu. Egun osoko irteera izango denez, honako hauek eramatea gomendatzen dizuegu:

- Arropa eta oinetako erosoak.
- Hamaiketakoa, bazkaria eta ura.



Irteera-kobrantzak

❖ LH3-4

Datorren ostiralean, azaroak 10, LH 3. eta 4. mailako ikasleek Txuri Urdinera egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **11,35 €** izango da.



❖ LH5-6

Datorren ostiralean, azaroak 10, LH 5. eta 6. mailako ikasleek Txuri Urdin eta Miramonera egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **13,90 €** izango da.

LH 6ko ikasleen txertaketa

Osakidetzatik bideratuta, eskola-programaren barruan, baimena sinatuta ekarri duten LH6. mailako ikasleei, **Meningokokoaren ACWY eta Giza Papilomaren aurkako txertoa** jartzera etorriko da Osakidetzako langilegoa **azaroaren 8an, asteazkena**.



Irakurketa solasaldia

Azaroak 15, asteazkena, 18:15ean, IRAKURKETA-SOLASALDIA, 9-11 urtekoei zuzenduta (LH4, 5, 6). Mintzagai: Yolanda Arrietaren MARI XOR; Yolanda bera gure artean izango da. Liburuaren hainbat ale jada eskuragari dugu Sutegi Liburutegian. Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteera-kobrantza DBH2

Datorren ostiralean, azaroak 10, DBH 2. mailako ikasleek Bertitz-Narbartera egindako irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30,00 €** izango da.



Ikastaroak atzerrian egiteko dirulaguntza-deialdia

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta, udan atzerrian ikastaroak egiteko diru-laguntza deialdia egin du. Eskaera egiteko epea azaroaren 23a bitarte irekita egongo da.

Informazio osoa [hemen](#).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN